

63. ALDIZKARIA - 1997ko maiatzaren 26a

10. NAO - 2015ko urtarrilaren 16a

32. Art. eta 34. Art.-en aldaketa

4. ORDENANTZA UDALAREN OSASUN ORDENANTZA, BARAÑAINGO UDAL MUGAPEAN ANIMALIAK EDUKITZEAREN GAINEKOA

Ordenantza honek xedea du Barañaingo gizakien eta etxeko animalien arteko harremanetarako osasun arauak eta baldintzak ezartzea, bai eta, Udalaren eskumenen barrenean, haien inguruko jarduera guztiak arautzea ere, Animaliak Babesteari buruzko maiatzaren 31ko 7/1994 Foru Legearen 2. xedapen iragankorrean aurreikusitakoari jarraikiz.

Arau hauetarik edozein ez betetzeak zehapena ekarriko du, baita kasuan-kasuan, animaliak kentzea eta/edo jarduera partez edo osorik ixtea ere.

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. art. Udal mugapean animaliak izateko baldintza hauek behar dira: osasun arriskurik ez sorraraztea, arriskutsuak ez izatea, hirugarrenei trabarik ez egitea, zuzen zaintzea, eta baldintza higieniko egokietan edukitzea.

Oro har baimena ematen da bizitza partikularretan etxeko animaliak edukitzeko, beti ere, ordenantza honetako baldintzak betetzen badira.

Animalien inguruko merkataritzako produkzio edo zerbitzuen jarduerak ordenantza honetan ezarritako baldintzak bete eta Udalaren nahitaezko baimena izan beharko dute, eta udal zerbitzu teknikoaren ikuskapena noiznahi jasotzen ahalko dute.

2. art. 1. Oro har, debekatuak daude edozeinazienda edo animaliaaren ustiategiak, haztegiak eta abeltegiak hirigintzako sailkapenean hirilur diren eremuetan, bai eta eremu haietan barrena saldoka iragatea ere.

Orobat, debekatua dago, oro har, errentako animaliak, hau da, jabeari baliabideak produzitzen dizkioten animaliak etxebizitzaren barrenean eduki edo gordetzea.

2. Horrelako instalazioek baimena jaso dezakete baldin eta etxe-hegaztiak eta untxiak hazteko soilik badira (etxeko eskortak), haien produkzioa etxeko kontsumorako bada, ordenantza hau onetsi aurrekoak badira eta hirilurraren inguruetan baldin badaude. Horretarako titularrak baimena eskatu behar du ordenantza hau onetsi ondoko sei hilabeteetan, eta Nafarroako Gobernuaren Osasuneko Albaitaritza Zerbitzuek eskortaren baldintza higienikoen gainean adostasun txostena egin ondotik.

Muntadura horiek desagertzekotzat hartzen dira eta, artikulua honen aurreko leerroaldean ezartzen denaren arabera baimena jasotzen dutenek ez dute ez eskualdaketarik ez titularraren aldaketarik egiterik izanen.

3. art. Udal agintaritzak manatzen ahal du aurreko artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten animaliak atzeman eta berak erranen duen tokira eramateko.

4. art. Animalia guztien jabeek eritasun zoonosiko eta epizootikoei aitzintzeko arauak bete beharko dituzte beti ere, eta behartuak daude udal agintaritzak osasun arloan ezarriko dituen eskakizun guztiak betetzera.

Animaliendako klinika eta sendagileek zoonosiaren agerraldiaren berri baldin badute, Nafarroako Gobernuaren agintari eskudunek ezarritako osasun betebeharrak beteko dituzte eta ahalik agudoena udal agintariei haren berri emanen die.

5. art. Animaliek hartuko duten tratua, kasu guztietan, gizalegezko irizpideen arabera izan da. Hori dela eta, debekaturik dago:

a) Haiek hiltzea, non eta ez den gaitz sendaezin edo ezinbertzeko premiagatik, edo jabeak horrela nahi duelako. Teknikari eskudunak emanen die heriotza, eutanasiaren bidez.

b) Haiei mutilaziorik eragitea, non eta ez den al baitariak egina, behar kliniko, halabehar funtzional edo estetikako arrazoiarengatik.

c) Tratu txarrik ematea edo justifikatu gabeko kalte edo oinazetik eragin diezaiekeen edozein gauza egitea.

d) Kontsumorako edo gizakiarendako erabilgarri den produkturen bat lortzeko animaliak edo lagun egitekoak hiltzeko, ankerkeriaz jokatzeko edo metodo orokorrak edo, arrazoirik gabe mingarri direnak erabiltzea, legezko aginduen kontra.

e) Jendaurrean edo pribatuki egitea animalien arteko borrokaldiak, edota legez arautu gabeko ikuskizunak, baldin eta horiek animalien heriotza, lesio edo justifikatu gabeko oinazetik ekar badezakete.

f) Animaliak erabiltzea antzerki, dantzaleku, zirko, filmazio edo gisako bertze edozein jardueratan, baldin eta hortik animaliarendako kalte, oinaze edo degradaziorik etor badaiteke.

g) Animaliak xaxatzea pertsona, ibilgailu edo bertze animalien aurka.

6. art. Irizpide horietan beretan oinarriturik, ez da baimenik ematen honako jarduera hauetarako:

a) Edozein motatako animalia bizirik saltzea, kalez kaleko edo merkatu txikiko salmantan.

b) Animaliak saritako, erakargarri publizitariotako, eskupetako edo, animalien kostu bidezko salerosketarekin ikustekorik ez duten bertze erosketa batzuen ordain, oparitako erabiltzea.

c) Animaliarik saldu edo ematea esperimenezko zientifikorako, indarra duen legerian ezarrita dauden bermeak bete gabe.

d) Animaliarik saltzea 14 urtetik beheitikoei, horien guraso boteretza edo zaintza dutenen baimenik gabe.

e) Zakurrak betiro loturik edukitzea.

7. art. Debekatua dago eta, hortaz, udal agintaritzak eskudunak zehatuko du, animaliak deslaintzea eta deslaintzearen animaliei jatera ematea.

Animaliekin segitu nahi ez duten jabeek eta udal mugapean animalia deslaintzearen ikusi dutenek udal zerbitzuei jakinarazio diete, hauek bil ditzaten.

8. art. Animalien jabe edo edukitzaileek instalazio egokietan atxiki behar dituzte, bai osasun eta higiearen ikuspegitik, baita behar dituzten zainketak eta artak bildu ahal izateko, beren premia etiologikoekin bat, arraza eta espeziearen arioren.

9. art. Animalia guztien jabeek haien garapen normalak behar duen elikadura eman behar die.

10. art. Jendeari edo bertze animalia batzuei lesioak egin edo behin eta berriz traba molestatu edo honako arau hauek hausten dituzten animaliak udal zerbitzuek atzemanen dituzte fakultatibo eskudunaren ikuskapenarekin.

11. art. Udal mugapean hiltzen diren animaliak, haien tamaina egokia baldin bada, material iragangaitzezko boltsetan sartu eta hiri hondakin solidoak biltzeaz arduratzen diren zerbitzuei eman egingen zaizkie, haien kudeaketarako ordenantzetan ezarritakoari atxikiz. Nolanahi ere, debekatua dago animalia hilak abandonatzea.

II. KAPITULUA

Lagun egiteko animaliei aplikatu beharreko berariazko araudia

12. art. Ordenantza hau aplikatzeari doakionean, "lagun egiteko animalia" da gizakiarekin bizi dena, harengandik irabaziak ateratzeko asmorik gabe.

13. art. Lagun egiteko animalien jabeek haien etengabeko zaintzaren ardura dute, eta ezin atera dira etxebizitzetatik edo lokaletatik kanpora jabeen eskutik ez baldin badoaz.

Etxebizitzetatik at libre ibiltzen diren lagun egiteko animaliak deslitzat hartuko dira eta udal zerbitzuek biltzen ahalko dituzte. Udal agintaritzak haiekin zer egin erabakiko du jabeek, harrapatu eta hiruretan hogeita hamabi orduko epean, erreklamatzeko ez badituzte. Epe hori iragandakoan ez dago ez erreklamatzeko ez kalteordaina jasotzeko eskubiderik, eta bidezko zehapan administratiboa aplikatuko da.

Atzemandako animalia mantentzeko kostuak bere jabearen bizkar izanen dira, eta berreskuratzen duen unean ordainduko ditu.

14. art. Debekatua dago animaliak garraio publiko kolektiboetan sartzeari, ikusmen eskasia duten pertsonekin joaten diren zakur gidarien kasuan izan ezik.

15. art. Debekatua dago animaliak honako toki hauetan sartzeari: jakiak fabrikatu, prestatu, bildu edo saltzen diren lokalak eta horretarako erabiltzen diren ibilgailuak.

Halaber, debekaturik dago animaliak elikagaiak saldu eta kontsumitzeko establezimenduetan sartzeari, ikusmen eskasia duten pertsonekin joaten diren zakur gidarien kasuan izan ezik.

16. art. Ez da baimenik ematen animaliak honelako lekuetan sartzeari: ikuskizun publikoak eta kirol eta kultur ikuskizunak egiten diren tokietan; erabilera publikoko igerilekuetan; gizakiendako eritetxeetan; ikastetxeetan; eta establezimendu plagizidatan.

Eraikinetako igogailuetan, berriz, sartzeari ahal dira. Hala ere, animaliak daramatzaten erabiltzaileak eta ez daramatenak elkartzen badira, azken hauek lehentasuna izanen dute, baita igogailuan bakarrik joateko eskubideari dagokionez ere. Gainerako, beharrik izanez gero, animaliekin doazenek igogailua garbitzeko obligazioa dute erabili ondoan.

Debeku eta lehentasun hauetatik salbuetsiak daude ikusmen eskasia duten pertsonekin joaten diren zakur gidariak.

17. art. Edozein mota edo kategoriatakoak izanik ere, ostalaritzako establezimenduen eta elikagaietan ari ez direnen jabeen gogoak erabakiko du animalien sarrera debekatzea ala ez, baina ikusteko moduan paratu behar dute lokaleko sarreran.

18. art. Eritasun kutsagarri baten aztarnak baldin badira eta lagun egiteko animalia batek pertsona edo animalia bati ausiki egin badio, osasun ikuskaritzako zerbitzuei eta udal zerbitzuei jakinaraziko zaie, eta zerbitzu hauek erabakiko dute zein osasun kontrol eta mugimendu murrizketa ezarri eta, bai eta ere, ausiki egin duen animaliarekin zein osasun jarduketa jarraiki behar den.

III. KAPITULUA

Zakurrei aplikatu beharreko berariazko araudia

19. art. Animaliei aplikatzen zaizkien arau orokorrak eta lagun egiteko animalien gainekoak ere aplikatuko zaizkie zakurrei.

20. art. Zakurren zentsua prestatu eta kudeatzea, Barañainen, udalaren eginkizuna da.

Udal mugapean bizi diren zakurren jabe edo edukitzaileak beharturik daude haiek identifikatzera, behin lau hilabete izanez gero, une horretan legeriak ezarria dukeen prozeduraren bidez.

Udal zerbitzuek edo albaitaritzaklinikek edo profesional partikularrek egiten dute identifikazio lan hori. Azken bi horien kasuan, egindako identifikazioen berri eman beharko diete Udalaren osasun zerbitzuei, gehienez ere zortzi eguneko epearen barrenean, zentsua eguneratu beharrez.

Edozein alta, baja, helbide edo titular aldaketa jabeak Udalari jakinarazi behar dio dena delakoa gertatu eta gehienez ere zortzi eguneko epean.

21. art. Udal mugapean bizi diren zakurren jabeen obligazioa da amorraren kontrako txertoak zakurrei paratzea, legezko arauetan ezarritakoaren arabera hasi eta jarraikia. Orobat, jabeen obligazioa da arlo honetako arauetan nahitaezko gisa ezarritako txerto eta tratamendu guztiak paratzea ere.

Zakurrak identifikatu eta haiei txertoak paratzen dizkieten zerbitzu baimenduek jabeari emanen diote egindakoaren egiaztagiria eta haren berri emanen zaie Udalari eta, hala behar izanez gero, Nafarroako Gobernuak zerbitzu eskudunei.

22. art. Zakurrak eremu publikoan, parke eta lorategietan eta aisi eremuetan ibiltzen ahal dira baldin eta behar bezala identifikatuak eta txertatuak badaude eta, nahitaez, ardura duen pertsonak gehienez ere 2 metroko katea edo uhal hauskaltzarekin lotuak eramaten baditu. Orobat, etxeetako sarreretan eta jabetza komuneko tokietan (atariak, eskailerak, igogailuak, eskailburuak, etab.). Aurretik lesioak egin dituzten zakurrek edo ustez arriskutsuak izan daitezkeenei muturrekoa ezarriko zaie derrigorrez.

Udaltzainek baldintza hauek betetzen ez dituzten zakurren zirkulazioa zehatuko dute, bai eta zakurrak bildu eta gorde ere, fakultatiboaren begipean.

23. art. Aurreko artikulua dioena aplikatzearen ondorioz atzemandako zakurrak udaltzainek identifikatuko dituzte eta jabeari jakinaraziko diote, honek 72 orduko epean zakurra erreklama dezan.

Jabeek erreklamatu gabeko zakurrak edo identifikatu ezin daitezkeenak udal zerbitzuek, lehenbizi, udaltzainei eman edo salaketa egin zuen pertsonari eskainiko diote, bigarrenaz animaliak babesteko elkarteei eta, hauetako inork zakurraren kargu hartu nahi ez badu, azkenik saldu egiten da, identifikazioa eman eta txertoak paratu ondotik, edo, bertzenaz, teknikari eskudunak eutanasiako prozeduren bitartez heriotza emanen dio. Nolanahi dela ere, animaliak babesteko araudia beti aplikatuko da.

Artikulu honetan ezarritako edozein jarduketaren kostuak zakurraren jabeak edo, hala bada, erostunak ordainduko ditu.

24. art. Zakurrekin doazen pertsonen ardura izanen da haiek espaloietan, galtzadetan, berdeguneetan, lorategietan eta bide publikoko edo erabilera publikoko bide pribatuko gainerako elementuetan kaka egitera eragoztearaino, Udalak propio eta ongi seinalizaturik paratuko dituen tokietan izan ezik.

Zakurraren gidaria behartua dago gorotza bildu, eraman eta botatzera. Horretarako etxeetarako zabor biltontziak edo Udalak paratuko dituen tokiak erabiliko ditu. Toki zikindua garbitzea jabearen kargura dago. Arau-hausleei behar den zehapen administratiboa ezarriko zaie.

25. art. Debekaturik dago zakurrak egotea etxebizitzetako komunitateko patioetan eta etxeetako jabetza komuneko terrazan edo bestelako lekuetan.

Era berean, balkoiak, terrazak, e.a. erabiltzea, etxebizitza pribatukoak direnean ere, baldin eta gorotz eta hondakinen bidez bertatik kutsatu edo zikintzen badira azpiko etxebizitzak edo bide publikoa.

26. art. Ikusmen urriko pertsonen gidazakurtzat hartuko dira, Itsuen Erakunde Nazionalak aitorturiko zentro nazional edo atzerrikoetan, ikusmen urriko pertsonen lagun egin, lagundu eta haiek gidatzeko irakatsiak izan direla egiaztatzen direnak.

Gidazakurra bere lana egiteko ez-gauzatzat hartuko da eri dagoela ikusten bada, oldarkor ageri bada, behar bezain garbi ez badago eta, orohar, pertsonentzat arriskugarri izan daitekeela uste bada.

Ikusmen urriko pertsona bera arduratuko da animalia behar bezala porta dadin, eta berekin eramanen du gidazakurraren osasun egoera ona dela egiaztatzen duen agiria.

Ordenantza honetaz baliatuz, gidazakurra eskubidea duen lekuetara sartzeagatik ikusmen urriko pertsonak ez du gastu gehigarri ordaindu behar, non eta gastu hori ez den ekonomikoki neur daitekeen zerbitzu bereziren bat emateari dagokiona.

27. art. Zakur zaindariak jabetza partikularreko barruti itxietan bakarrik ibil daitezke aske, bide publikora ateratzerik ez dute izanen eta jabeak seinale irakurgarri eta ikusgarriak paratuko ditu barrutiaren sarrera guztietan, toki agerian.

IV. KAPITULUA

Etxeko animaliei lotutako jarduerak

28. art. Lagun egiteko animaliei lotutako eta ordenantza honi atxiki beharreko jarduerak honako hauek dira: haztegiak, altxatokiak, salerosketarako dendak, apaindegiak, kontsultategiak, animaliaendako klinika eta ospitaleak eta hilerriak.

Jarduera hauek, baimenari, funtzionamenduari eta ikuskerari dagokienez, jarduera sailkatuen gainean indarrean dagoen araudiari atxikirik daude, gainerako xedapen aplikagarriak betetzea deusetan ukitu gabe.

29. art. Jarduera hauek merkataritzako lokalei aplikatzen zaizkien baldintza higieniko-sanitarioak betetzeaz gainera, ondoko hauek ere bete behar dituzte:

Horretarako bakarrik prestatutako eraikin independenteetan kokatuko dira, salerosketako jarduerak, zerbitzu apaingarriak eta animaliaendako kontsultategiak edo klinikak izan ezik. Hauek beheko solairuetako lokaletan bakarrik kokatzen ahalko dira.

Egoitzetako lurzoru eta paretetako materialak, erabilera administratibo soila duten geletakoak salbu, gogor, iragazkaitz eta garbitzeko zein desinfektatzeko errazak izanen dira.

Lurzoru eta paretan elkarguneak borobilduak edo biselatuak izanen dira.

Ur korrante edangarria eta aireztapen sistema egoki eta nahikoa izanen dituzte.

Garbiketa eta desinfekzio lanak eta insektuak eta arratoiak galtzeko lanak aldizka egingen dira, eta garbiketa eta desinfekzio lanak urtean behin bederen baimendurik dagoen enpresa batek egingen ditu.

Udalaren baimenean lokal horietan batera egon daitezkeen animalien gehieneko kopurua agertuko da, lokalaren edukieraren arabera.

Beheko solairuetako lokalek behar bezalako intsonorizazioa izanen dute.

Jardueraren ondorioz sortzen diren hondakin solidoak egunero bildu eta eramanez dira, hondakin solidoak kudeatzeko ordenantzak ezarri bezalaxe.

Edozein eritasun zoonosiko sortuz gero, berehala jakinaraziko zaio Udalean eskumena duen osasun agintaritzari.

V. KAPITULUA

Arau-haustek eta zehapenak

30. art. Ordenantza honetan ezarritakoa ez betetzeak udaltzainen salaketa ekarriko du, eta arau-hauste izanen dira hemengo honetan halaxe tipifikatuak.

Zehapen prozedurari udal zerbitzu eskudunek hasiera emanen diote, edo arau-haustearen ondorioz ukitutako alderdiak bultzaturik has daiteke, edo Barañaingo udalerriko edozein herritar edo entitatek bultzaturik. Hori horrela, eta Prozedura Administratiboari buruzko Legean ezarritakoaren ondorioak bete daitezzen, ustezko arau-haustek salatzen dituzten partikularrak "interesatutzat" hartuko dira prozeduran.

31. art. Ordenantza honetan ezarritakoaren kontrako arau-hausteen erantzule izanen dira udal mugape honetan diren arlo honetako jardueren eta instalazioen titularrak bai eta animalien jabeak ere.

32. art. Artikulu aldatua (2015-01-16ko NAO n argitaratua)

Zehapenaren tramitazioa eta prozedura Administrazio Prozedurari buruzko Legeak ezartzen duen araudi orokorrari eta zehatzeko ahalmenaren gainean hura garatzen duenari atxikiko zaizkie.

Bai arau-hauste oso larrien eta larrien bai arinen kasuan, prozedura hasi zenetik sei hilabete iragan eta ez bada zehatzeko ebazpenik eman, hura iraungi egingen da eta jarduketak artxibatuko ditu ebazpena emateko organo eskudunak, edozein interesdunek eskatuta edo ofizioz. Arau-hauste arinen kasuan, hasteko datatzat hartuko da interesdunari salaketa jakinarazteko eta alegazio epea irekitzeko igorritako idazkian agertzen dena.

33. art. Ordenantza honen kontrako arau-hausteen sailkapena eta zehapena Animaliak Babesteko maiatzaren 31ko 7/1994 Foru Legean eta hura garatzen duen araudian ezarritakoaren arabera egingen dira. Araudi horretan agertzen ez diren kasuetarako, honako hau aplikatuko da:

a) Arau-hauste arinak:

Oro har, arau-hauste arinak izanen dira jardueretarako eta instalazioetarako baimenean ezarritako baldintzak eta ordenantza honen betebeharrak eta xedapenak ez betetzea, arau-hauste larriaren edo oso larriaren kalifikazioa ez baldin badute. Zehazki, honakoak dira arau-hauste arinak:

- 1.-Animalien eskualdaketarako araudia aplikatzean, derrigorrez deklaratu beharreko espezieetako animaliak deklaratu gabe saldu, laga edo titularra aldatzea.
- 2.-Animaliak zakurren udal zentsoan ez inskribatzea.
- 3.-Animaliak garraio publiko kolektiboko ibilgailuetan sartzea eta ordenantza honen 15 eta 16. artikuluetan ezarritakoa ez betetzea.
- 4.-Animalia deslaiei jatera ematea.
- 5.-Hiriko eremu publikoetan barna zakurrak eramatea uhalez edo kateaz loturik egon gabe.
- 6.-Baimendu gabeko tokietan edo baldintzetan animaliek kaka egitea.
- 7.-Hiriko eremu publikoetan animalien kakak ez garbitzea.
- 8.-Jendeari taigabe traba egitea.
- 9.-Ordenantza honetako 6. artikularen b) eta d) puntuetan zehaztatutakoa urratzea.
- 10.-Ordenantza honetako 25. artikuluan zehaztatutakoa urratzea.

b) Arau-hauste larriak:

Honakoak izanen dira arau-hauste larriak:

- 1.-Arau-hauste arinetan behin eta berriz erortzea.
- 2.-Udal agintzaritzari, haren funtzionarioei edo udaltzainei, haien eginbeharretan ari direla, informaziorik ez eman edo desmen egitea; halaber, informazio edo dokumentazio faltsua edo okerra ematea ere.
- 3.-Animaliei mutilazioak eragitea, indarra duen araudiak baimendu ez bezala.
- 4.-Animaliak behar den elikadurarik gabe atxikitzea.
- 5.-Higiene eta osasunaren ikuspegitik, animaliak instalazio desegokietan edo behar ez bezalako baldintzetan atxikitzea.
- 6.-Animaliak gizakien, ibilgailuen edo bertze animalien kontra axatzea.
- 7.-Animaliak indarra duen legeriaren kontra saltzea.
- 8.-Ordenantza honetako 27. artikuluan zehaztatutakoa urratzea.
- 9.-Proiektuak, zerbitzuak edo instalazioak, mantentzea haiek funtzionatzeko emandako baimenaren baldintzak bete gabe.
- 10.-Animaliak ez txertatzea edo beraiei ez ematea osasun agintarietako nahitaezkoak deklaraturako tratamenduak.

11.-Animaliak eraso arina egin badu edo albaitero ofizialaren azterketan eritasunik duela atzeman bada, animalia ez identifikatzea edo ez txertatzea.

c) Arau-hauste oso larriak:

Honakoak izanen dira arau-hauste oso larriak:

1.-Arau-hauste larrietan behin eta berriz erortzea.

2.-Animaliak osasun egoerari edo berezko portaerari kalte egiten dieten baldintzetan mantentzea.

3.-Animaliak babesteko araudian eta ordenantza honen xedapenetan debekatua egonik ere, animalia hiltzea.

4.-Animaliekin ankertzea, tratu txarra edo laidogarria ematea, edo eraso fisikoak eragitea.

5.-Ordenantza honetako 5. artikularen e) eta f) puntuetan xedatutakoa urratzen duten jardueren antolaketa, zabalkuntza eta gauzatzea.

6.-Animaliak deslaitzea ordenantza honetako 7. artikuluan aurreikusi bezala.

7.-Zakurrak beti ere loturik atxikitzea.

8.-Animalia hilak baimentzen ez den moduan uztea.

9.-Ordenantza honek ezartzen dituen planak, proiektuak, zerbitzuak edo instalazioak funtzionamenduan edukitzea udal baimenik izan gabe.

10.-Animaliak eraso larria egin badu edo albaitero ofizialaren azterketan eritasun larririk duela atzeman bada, animalia derrigorrez ez identifikatzea edo ez txertatzea.

11.-Ordenantza honetan araututako eginkizunak betetzen ari direla, udal agintaritzari, haren funtzionarioei edo udaltzainei kontra egin, indarkeria erabili edo mehatxatzea.

d) Arau-hausteak kalifikatzean, asmoa, egindako kaltearen tamaina, izandako partaidetza maila eta irabaziak, egindako kaltearen konponezina eta Udalaren agintaritza eskudunak atzemandako aringarriak eta astungarriak ere kontuan hartuko dira.

34. art. Artikulu aldatua (2015-01-16ko NAO n argitaratua)

1. Ordenantza honetako aurreko artikuluari jarraikiz kalifikatutako arau-hausteak honela zehatzen ahalko dira:

a) Arau-hauste arinei ohartarazpena edo 60,1 eurotik 150,25 eurora bitarteko isuna ezarriko zaie.

b) Arau-hauste larriei 150,26 eurotik 601,01 eurora bitarteko isuna ezarriko zaie.

c) Arau-hauste oso larriei 601,2 eurotik 3.005,06 eurora bitarteko isuna ezarriko zaie, utzaraztea eta/edo animalien konfiskazioa eta, hala behar denean, establezimendua, jarduera edo instalazioa aldi batez etetea erabat edo hein batean, edo behin betiko etetea erabat edo hein batean.

2. Zehapenak ezartzerakoan honako irizpideak hartuko dira kontuan, isunen zenbatekoa graduatzeko eta zehapen osagarriak ezartzeko:

- a) Egindako arau-haustek gizartean zer eragin izan duen eta zer kalte egin duen.
- b) Irabazi asmo bidegabekorik izan den eta arau-haustean zer etekin ateratu den.
- c) Ankerkeriarik izan den animaliarekin.
- d) Arau-haustek errepikatu diren edo haietan berrerori ote den.

3. Isuna %50 merkeago ordaintzen ahal da, zehapen prozedura ireki dela jakinarazi ondoko hogeita hamar egun natural iragan aitzin pagatzen bada eta inpugnazio orori uko egiten zaiola dioen idazkia aurkezten bada.

Deskontuz ordainduz gero, prozedura bukatutzat joko da, ebazpen espresik eman beharrik gabe.

35. art. Alkateak izanen du zehapenak paratzeko ahalmena eta, Toki Araubidearen Araudiari jarraikiz, haren eskuordetza egiten ahalko du.

36. art. Animalia jabeak, behar bezala hala agintzen zaionean, identifikatu behar du animalia nork zeukan eta beraz nor den arau-hauste administratiboen erantzulea, eta prozedurako tramitean arrazoi justifikaturik gabe hala egiten ez badu, diru isuna ezarriko zaio hutsegite arin batengatik, gero ordaindu behar dituzkeen kalteordainak deusetan ukatu gabe.

Udal ordenantza honek aurreikusten dituen zehapenetako edozein ezartzeak ez du erantzukizun zibila galarazten, ez eta zehatuak kalte-galerengatik pagatu behar dituzkeen ordainak ere.

Animalia bati tratu txarrak emateagatik arau-haustea egin duten guztiak desgaituak izanen dira aurrerantzean animaliak etxean edukitzeko. Desgaitzea aldi batekoa izan daiteke, urtebetekoa alegia, nahiz iraunkorra, lege haustea ere nolakoa den, larria edo oso larria, eta kontutan hartuta animalia egon zaion kaltean zenbaterainoko ankertasuna edo nahikeria izan den.

37. art. Isuna ezartzeak arau-hausteko animaliak dekomisatzea ekartzen ahal du, eta beti ere arau-haustean erabili diren harrapagailuak edo ehiza tresnak dekomisatzea.

Lege hauste oso larriak egiteak ekar dezake, hala behartzen denean, lege haustean erantzule izandako egoitza, lokal edo muntadurak ixtea.

38. art Bere agenteen bitartez, administrazio eskudunak zilegi izanen du babestu beharreko animaliak dekomisatzea, baldin arrazoizko zantzurik bada ordenantza honetako xedapenak hautsi direla.

Dekomisatze hori badaezpada eginen da, dagokion zehapen espedientea ebatzi arte; ebazpena ikusirik, animalia jabeari bihurtuko zaio, edo administrazioaren jabetzara pasako, eta hark zilegi izanen du erakunde zoologikoei edo zientifikoei ematea, jatorrizko herrira bihurtzea edo bere ingurune naturalean askatzea animalia autoktonoa baldin bada.

Animalia dekomisatuak luzaz edukitzea arriskutsua bada beren bizirako eta berehala askatu beharra baldin bada, animalia Lurraldearen Antolamendu eta Ingurugiro Departamentuko langileek askatu beharko dute haren inguru naturalean eta lekuko aitzinean.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenbizikoa.-Ordenantza honetan aurrerantzean ez den orotan jarraitu zaio Toki Administrazioari buruzko Foru Legean, Animalien Babesari buruzko maiatzaren 31ko 7/1994 Legean, Ingurugiroa Babesteko Jarduera Sailkatuei buruzko Foru Legean, Osasunari buruzko Foru Legean, Osasunaren eta Animaliak Babestearen gaineko Araudia, eta arau horietaz legez egin den garapenean eta bertze edozeinetan aplikagarri zaizkien xedapen orokorretan ere ezarritakoari.

Bigarrenena.-Indarrrik gabe gelditu dira ordenantza honen aurka jotzen duten maila bereko edo tikiagoko udal ordenantzak.

Hirugarrena.-Ordenantza honek Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

ERASKINA

Animaliak babesteari buruzko maiatzaren 31ko 7/1994 Foru Legearen 10.3 artikuluko proposamenaren ondorioz, Udaltzaingoko Buruzagitza honek udal mugapean arakatzeari ekin dio lagun egiteko animaliak beren premia fisiologikoak behar bezalako baldintza higienikoetan egiteko eta aisiarako lekua izateko tokiak izan ditzaten.

Udalerrriaren hiri egituraren ezaugarriak direla eta, zailtasunak daude modu ekidistantean herrialde guztia harrapatuko luketen esparruak aurkitzeko, kontutan hartuta, aldi berean, Udalak bere jabetzapeko lur gutti duela eskura.

Hainbertzenarekin, hoberenak direlakoan, hiru lekune proposatzen dira, honako hauek:

1. 12-15 metro zabal eta 180 luze (2.000 m², hor nonbait) egiten dituen lur zerrenda, Barañaingo errondako galtzadaren eskuin aldean, hura Kirolen hiribidearekin bat egiten duenetik industrialdearen hastapeneraino.

Animaliak kontrolik gabe atera ez daitezzen, bideko espaloitik bereizteko hesia behar du, bi muturretan sarrera banaduna, eta Arga ugaldearen gaineko ezpondan babes aski emanen duen hesia.

2. Eultza ikastetxearen gibelaldean, Zizur Zendeako errondaren eta Extremadura kalearen artean dagoen orubeko zerrenda, guti goiti-beheiti 35 metro zabal eta 90 metro luze dena (3.000 m², hor nonbait).

Gaurko murrak bereiziko du Eultza ikastetxetik. Bereizteko hesia behar da Extremadura kalean, Zizur Zendeako errondan eta honek Eultza ikastetxearen bertikalaren egiten duen muturrean. Aipatu bi karrketan sarrera bana egin behar da.

3. 100 bat metro luze eta zabalera zehaztugabea duen lur zerrenda (1000-1500 m²), herri zaharraren eta llundaingo irin-lantegiko errepidearen arteko expandan dagoena.

Mendebaldean babesteko hesia behar du, alderik pikoenean.

Kasu guztietan sastrakak kendu behar lirateke lurra egokitzeko.